


Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskal Filologian lizentziadun eta Euskaltzain-  
diaren Onomastika batzordeko idazkari denak,

### EGIAZTATZEN DU:

Onomastika batzordeak Zigoitia udalerriko **Murua** kontzejuaren izenaren deklinabidea aztertu ondoren, amaierako *-a* artikulutzat hartzen duela.

Izenaren egitura argia da: *mur* hitz arrunta, toponimian ugari dena, eta *-a* artikulua. Tamalez, oraingoz ez da aurkitu herrian bertan izenaren erabile-  
raren berri eman dezakeen lekuko zehatzik, baina izen honi dagokionez, topo-  
nimia argia da. *Muru* izeneko auzo bat bada Aramaion eta hiru kontzeju Na-  
farroan. Hortaz, Onomastika batzordeak euskaraz *-a* artikulua amaitzen diren  
izenetan segitzen den deklinabidea proposatzen du *Murua* kontzejuaren izene-  
rako: *Murua*, *Muruan*, *Muruko*, *Murutik*, *Murura*...

Eta hala adierazteko eta bertako kontzejuari bidaltzeko, izenpetzen du Bil-  
bon, bi mila eta hiruko urriaren hogeian.



Andres Iñigo Ariztegi,  
Presidente de la Comisión  
de Onomástica



Mikel Gorrotxategi,  
Secretario de la Comisión  
de Onomástica